



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

Oharra BREXITA NEGOZIATZEKO 4. ERRONDAZ

Noiz: 2017ko irailaren 24tik 28ra arteko astean

EMAITZA NAGUSIAK

Laugarren saioa Theresa May lehen ministroak Florentziako hitzaldia egin zuenetik egun batzuetara izan zen. Izatez, erronda aurreko astean egitea zegoen aurreikusita, baina Erresuma Batuaren eskariz (hitzaldi hori zela eta) hitzordua atzeratu egin zen. Dinamika berri bat sumatu zen, lan gehiago eta hobeto egiteko aukera eman zuen dinamika, nahiz eta desadostasun handiak dauden oraindik.

Herritarren arloan, Erresuma Batuak bere legegintza esparruan EB uzteko akordioa sartzea erabaki zuen, eragin zuzena emanez, herritarrek britainiar auzitegiatan hel egiteko moduan, eta hori aurrerapauso handia izan zen.

Hala ere, Erresuma Batuak herritarren eskubideak babesteko EBren Justizia Auzitegiaren jurisdikzioa onartzeari uko egiten jarraitu zuen eta Michel Barnierrek ohartarazi egin zien oztopo hori onartezina dela EBren aldetik.

Alderdi horrez gain, desadostasunek berdin jarraitzen dute familia berrelkartzea –horretan EBk orain dauden eskubideak mantentzea aldarrikatzen du–, gizarte eskubideen eskualdaketa (bereziki gizarte segurantzaren onurak esportatzea) edo administrazio prozedurak sinplifikatzea bezalako beste arlo batzuetan, azken honetan, hain zuzen, Erresuma Batuak hitz eman baitzuen sistema sinplifikatu bat jarriko zuela herritarren eskura.

Finantzen akordioa dela eta, hitzaldian, Erresuma Batuak EBko estatu kidea izaten jarraitzen duen bitartean bere finantza konpromiso guztiak (finantza aldi osoari dagozkionak) beteko zituela eta Brexitagatik estatu kide batek ere ez lukeela gehiago ordaindu beharko ziurtatu zuen lehen ministroak. Hala ere, negoziazio erronda honetan finantza konpromiso horiek zein diren zehazteko moduan ez zegoela ziurtatu zuen Erresuma Batuak. Bestalde, EBk konpromiso batzuk Erresuma Batuak EB utziko duen eguna baino harago doazela azpimarratu zuen, eta maila teknikoan aurrerakuntza handia izan arren nahikoa ez dela. Ildo horretan, Michel Barnierrek argi utzi zuen Erresuma Batuak eginbehar ekonomiko eta finantzarioak errespetatzea ez dagoela eta ez dela egongo etorkizunean EBren eta Erresuma Batuaren artean egongo den harremanari inola ere lotuta. Ez da eztabaidatuko etorkizunaz, nahikoa den aurrerakuntza ikusi eta EB uzteko akordioa amaituta egon arte.

Azkenik, Irlanda dela eta, eztabaida eraikitzailea egin zen, baina egoera bakana da, oreka aurkitu behar duena EBren ordenamendu juridikoaren osotasuna errespetatzearen eta Ostiral Santuko Akordioen edukiaren artean.